

## EUSKO LEgebiltzarreko Bakea eta Askatasuna Saharar Herriarentzat Taldeartekoaren Komunikatua

Eusko Legebiltzarreko "Bakea eta Askatasuna Saharar Herriarentzat" taldeartekoak Bidegabeki espetxeratua izan den Mohamed Lamin Haddi kazetari sahararrak pairatzen duen egoera salatu du, eta Fronte Polisarioak Espainian duen Ordezkaritzak egindako premiazko deialdiarekin bat egin du.

Espainiarako Saharako Ordezkaritzak Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen eta Giza Eskubideen defentsarako erakundeen premiazko esku-hartzea eskatu du Mohamed Lamin Haddi kazetari sahararren bitzta salbatzeko. Gdeim Izik taldeko preso politikoa da, eta 25 urteko kartzela-zigorra ezarri dio auzitegi militar batek.

Kazetari gazteak gose greba mugagabea hasi zuen duela 48 egun, urtarrilaren 13an hain zuzen ere, Marokoko Tiflet2 espetxean jasaten ari den tratu txarrak eta isolamendu luze eta ankerra salatzeko. Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Behatokiak otsailean eskatu zuen haien askatasuna, eta salatu zituen indarkeria- eta ondoez-ekintzak, besteak beste, hiru urtez isolamendu-erregimenean egon izana, elikadura egokirik ez izatea, ziegan argirik ez egotea eta mediku-arreta ukatzea.

Era berean, Europako Parlamentuko taldeartekoaren komunikatuarekin bat eginez, eskatzen dugu erakundeek ekintza egokiak har ditzatela Sultana Khaya Giza Eskubideen defendatzailearen babesa bermatzeko. Izan ere, gaur egun, errepresio polizial gogorra dago haren etxean, Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuan.

"Sahararen Espainiarako Ordezkaritzak azpimarratu du Mendebaldeko Saharako gerra-ekintzen egungo itzulerak saharar zibilen errepresioaren eta oinarrizko eskubideen urraketan gorakada kezagarria eragin duela Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan".

Euskal taldeartekoak berretsi egin nahi ditu inolako bermerik gabeko epaiketa bidegabe batean kondenatutako Gdeim Izikeko presoen askapenari buruz egindako deiak, eta gogora ekarri ditu Nazio Batuen ebazpenak, Mendebaldeko Saharan autodeterminazio-eskubidea betetzeko erreferenduma egiteko jarduera-esparrua ezartzen dutenak.





Eusko Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 2a.



## COMUNICADO DEL INTERGRUPO "PAZ Y LIBERTAD PARA EL PUEBLO SAHARAUI" DEL PARLAMENTO VASCO

El intergrupo "Paz y Libertad para el Pueblo Saharaui" del Parlamento Vasco denuncia la situación que sufre Mohamed Lamin Haddi, periodista saharauí encarcelado injustamente y se suma al llamamiento de urgencia realizado por la Delegación del Frente Polisario en España.

La Delegación Saharaui para España ha solicitado la intervención urgente del Comité Internacional de Cruz Roja y de las organizaciones defensoras de los Derechos Humanos para salvar la vida del periodista saharauí Mohamed Lamin Haddi, preso político del grupo de Gdeim Izik, condenado por un tribunal militar a 25 años de cárcel.

El joven periodista empezó una huelga de hambre indefinida hace 48 días, concretamente el 13 de enero, para denunciar los malos tratos y el largo e inhumano aislamiento al que está sometido en la prisión marroquí de Tiflet<sup>2</sup>. El Observatorio para la Protección de los Defensores de Derechos Humanos ya exigió su libertad en febrero y denunció los actos de violencia y malestar al que está sometido, entre ellos, tres años en régimen de aislamiento, así como la falta de alimentación adecuada, la ausencia de luz en su celda y la negación de atención médica.

También, uniéndonos al comunicado del Intergrupo del Parlamento Europeo, exigimos que se tomen por parte de las diferentes instituciones las acciones oportunas para asegurar la protección de Sultana Khaya, defensora de Derechos Humanos, objeto en la actualidad de una dura represión policial en su casa, en el territorio ocupado del Sahara Occidental.

"La Delegación Saharaui para España subraya que el actual retorno de las acciones bélicas en el Sahara Occidental está provocando un preocupante aumento de la represión y las violaciones de los derechos fundamentales de los civiles saharauis en los territorios ocupados del Sahara Occidental".

El Intergrupo vasco quiere reiterar los llamamientos realizados en relación con la liberación de los presos de Gdeim Izik, condenados en un juicio injusto y sin las más mínimas garantías, y recuerda las resoluciones de Naciones Unidas que establecen un marco de actuación para la





celebración del referéndum en cumplimiento del derecho de autodeterminación en el Sahara Occidental.

Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz, 2 de marzo de 2021.

